



EBAZPENA, 2021eko otsailaren 19ko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, EAeko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara ematen duen zuzendari beraren 2021eko otsailaren 16ko ebazpenaren akatsak zuzentzen dituena.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 16ko ebazpenaren bidez argitara eman zen EAeko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuazioa adierazten zuena.

Akats materialak aurkitu dira 1.2.1 ataleko merezimenduen puntuazioaren transkripzioan eta puntuen guttizkoan 2 parte-hartzailetan eta 1.1.1, 1.1.2 eta 1.2.1 ataleko merezimenduen puntuazioaren transkripzioan beste parte-hartzaile batean eta onartutakoen behin betiko zerrendan puntuen guttizkoan; horregatik, eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“Administrazio Publikoek, halaber, izango dute edozein unetan, ofizioz edo interesatuen eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak zuzentzeko aukera”*. Horiek horrela, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

## EBAZTEN DUT

**Lehena.-** Zuzentzea ikusitako akats materialak 1.2.1 ataleko merezimenduen puntuazioaren transkripzioan 2 parte-hartzailetan eta 1.1.1, 1.1.2 eta 1.2.1 ataleko merezimenduen puntuazioaren transkripzioan beste parte-hartzaile batean eta puntuen guttizkoan 2020/2021eko ikasturtean EAeko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleen arteko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrendan. Horiek horrela, puntuazio zuzena ebazpen honen eranskinean agertzen dena da.

**Bigarrena.-** Gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 19a

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**


ERANSKINA / ANEXO

Se corrigen los errores en las puntuaciones del Ondorengo parte-hartzaileen 1.1.1, 1.1.2, 1.2.1. apartados 1.1.1, 1.1.2, 1.2.1 y Total sin Euskera ataletan eta guztizkoaren, euskararik gabe, de los/as siguientes participantes, quedando de la puntuazioetan dauden akatsak zuzentzen dira. siguiente forma: Horrela geratzen dira:

NAN/DNI: \*\*\*0592\*\* DEITURAK ETA IZENA/APELLIDOS Y NOMBRE: ERREA REDIN SILVIA MODA./MODA.: A  
 E.Z.P./N.R.P.: A45EU 04240017 EP/SP: DEFI HE/PL: PL2

1.2. ANTZINATASUNA KIDEGOAN/ANTIGUEDAD EN EL CUERPO..... **4,3332**  
 1.2.1 .. **4,3332** 1.2.2 .. 1.2.3 ..  
 GUZTIRA EUSKERA GABE/TOTAL SIN EUSKERA .. **26,7998**

NAN/DNI: \*\*\*5786\*\* DEITURAK ETA IZENA/APELLIDOS Y NOMBRE: ANTXIA UNANUE LARRAITZ MODA./MODA.: J  
 E.Z.P./N.R.P.: A45EU 12490019 EP/SP: PROV HE/PL: PL2

1.2. ANTZINATASUNA KIDEGOAN/ANTIGUEDAD EN EL CUERPO..... **0,3332**  
 1.2.1 .. **0,3332** 1.2.2 .. 1.2.3 ..  
 GUZTIRA EUSKERA GABE/TOTAL SIN EUSKERA .. **4,6664**

NAN/DNI: \*\*\*5137\*\* DEITURAK ETA IZENA/APELLIDOS Y NOMBRE: TOUZON VAQUERO SUSANA MODA./MODA.: A  
 E.Z.P./N.R.P.: A45EU 09800011 EP/SP: DEFI HE/PL: PL2

1.1. ANTZINATASUNA IKASTETXEAN/ANTIGUEDAD EN EL CENTRO ..... **39,0000**  
 1.1.1 .. **39,0000** 1.1.2 .. 1.1.3 ..  
 1.2. ANTZINATASUNA KIDEGOAN/ANTIGUEDAD EN EL CUERPO..... **16,3332**  
 1.2.1 .. **16,3332** 1.2.2 .. 1.2.3 ..

GUZTIRA EUSKERA GABE/TOTAL SIN EUSKERA .. **66,8832**